


## Herrera

Larraitz Garmendia (fnoa.: 272884)

Axisklo  
taldearekin  
Burgosera

**a**xisklo atseden taldeak aurten ere uda honetarako kanpaldi berezia antolatu du Barbadillo de los Herberos, Burgoseko herrira. harreman berriak landuz, jokoak, denbora pasak, etxeko lanak... aisia modu sano batean bete ahal izango da, aipatu herrian dagoen etxe eder batean. Kanpaldia uztaila bitartean izango da, hain zuzen ere, hilaren 1etik 14ra bitartean. Bertan 10-15 urte bitarteko gazteek har dezakete parte eta izena emateko epea hilaren 15an bukatuko da.

Kanpaldi osoaren prezioa 22.000 pezeta da. Interesa izanez gero dei egin 395921 edo 396289 telefono zenbakietara.

Bla Bla-Mondongi  
txapelkunak

Joan den asteburuan, auzoko frontoian, Mozkor Frentekideak antolatutako gomazko paleta txapelketa finala jokatu zen. Bertan aritutako bikoteen goitizenak Bla Bla-Mondongi eta Kupelas-Kanito izan ziren. Hasieran ikusmin handia sortu zuen partidua bazen ere, garaileek lortutako 3 - 13ak bertan behera utzi zituen apostu guztiak.

## Loiola

Gorka Muneta (fnoa.: 461540)

## Futbitoia hasia da

Dagoeneko martxan da Loiolako futbito txapelketa, aurtengoa XXI. edizioa izango da. 18 taldek hartuko dute parte, gehienak loiolatarrak. Partiduak Ciudad Jardinen jolastuko dira astegunetan, 19.30etan lehenengoa eta arratsaldeko 20.30etan bigarrena. Txapelketa formula ohikoa izango da, hau da,

hasieran taldeak liga jokatu-ko dute bi taldetan banatuta, finalera iritsi arte.

## Errepide arriskutsua

Amaratik Loiolara datarren autobidea oso arriskutsua bihurtu da hibe berria egin dutenetik. Kotxe istripuak maiz gertatzen dira, azkena Jon Urbietta Kultur Etxeko arduradunarena pasa den astean. Zorionez, Jon etxean dago istripuaz osa-

tzen. Auzotarrek behin baino gehiagotan salatu dute arrisku handia, baina zerbait gertatu arte...

## Mus txapelketa abian

Hontza elkartean ostiralero mus txapelketak antolatzen dira. Txapelketaren prezioa 1.000 pezetakoa da eta 4 erregetara jokutzen da. Partidak gaueko 23.00etan jokatu-ko dira eta irabazleentzako azpizun ederra dago.

**BARBRAUN**  
**ABERNA**  
AINGERU KALEA

**LANBROA**  
KONSTITUZIO PLAZA

**PERKU**  
**TABERNA**  
SAN JERONIMO KALEA

## PARTE ZAHARREKO giro beroena

**SAN VICENTE**  
KALEA

**MARI**  
KALEA

**ERNIOPE**  
Egun osoan  
euskal giroa  
San Juan kalea 11 • Tfnoa.: 42 57 86  
PARTE ZAHARRA • DONOSTIA

## Egitarau oparoa

### Ekainak 2

◆ 19.30: Ospetsuak sukaldean: J. Santamaria eta Elena Arzak. Hitzaldi-dastaketa: Extremadurako produktuak.

◆ 21.00: Arzak jatetxeak eskainitako afaria. Prezioa: 3.500 pezeta.

### Ekainak 3

◆ 19.30: Ospetsuak sukaldean: Aranburu eta Argiñano jatetxea. Hitzaldi-dastaketa: Galiziako produktuak.

◆ 21.00: Kataluniako Ro-

sas herriko «El Bulli» jatetxeak eskainitako afaria.

### Ekainak 4

◆ 19.30: Ospetsuak sukaldean: Arzak eta Subijana. Hitzaldi-dastaketa: Nafarroako produktuak.

◆ 21.00: Tafallako Tubal jatetxeak eskainitako afaria.

### Ekainak 5

◆ 19.30: Ospetsuak sukaldean: Eva Argiñano eta Castillo. Hitzaldi-dastaketa: Euskal Autonomi Elkarte produktuen dastaketa.

◆ 21.00: Fermin Arran-



Aurten ere ia ez bezala hainbat sukaldari ospetsuk hartuko dute parte Intxaurrendoko Gastronomi Astearen.

bide, Christian Parra, Maurice Isabal eta Michel Geutherr ek prestatutako afaria.

### Ekainak 6

◆ 19.30: Ospetsuak su-

kaldean: Juan Maria Humada eta Luis Irizar. Hitzaldia eta dastaketa: Andaluziako produktuak.

◆ 21.00: Oñatz tabernak eta Geltoki gozotegiak eskainitako pintxo-afaria.

### Ekainak 7

◆ 09.00: Elorrioko Gazeta elkarteak bi txekor erreko ditu eta ondorengo afari herrikoian jango dira.

◆ 16.00: Arzak jatetxeari omenaldia.

◆ 17.00: Elkarre gastronomikoen lehiaketa.

◆ 20.30: Afari herrikoia. Menua: bakailaoa pil-pil erara,

## HITZALDI ETA DASTAKETAK




Hego eta Ipar Euskal Herriko sukaldaritzak eta produktuez gain, estatu espainiarreko hainbat ingurutako gastronomiak ere tokia izango du Intxaurrendon. Honela, Galizia, Katalunia, Extremadura eta Andaluziako sukaldaritzari buruzko hitzaldiak izango dira, eta baita bertako produktuen dastaketa ere.

## PRESSBEER, S.L.

PRESIOA ETA GARAGARDOAK  
GARAGARDOEN INPORTAZIO ETA BANAKETA



70 GARAGARDO  
DESBERDIN BAINO  
GEHIAGO ZURE ESKU



Ubarburu pasealekua 100 • Martutene, 27. poligonoa • Tfnoa. eta faxa: 45 26 75 • DONOSTIA